

## THIBAUT GARCÍA

Lehen saria jaso zuen 2015ean Guitar Foundation of America (AEB) lehiaketa prestigiotsuan, BBC New Generation Artist izan da (2017 - 2019) eta «Révélation Instrumentale» aitortza jaso zuen 2019ko Victoires de la Musique Classique-n. Thibaut García bere belaunaldian talentu handienetakoa duen gitarrista bihurtu da pixkanaka.

Thibaut García, jatorri frantziar eta espainiarreko gitarra-jotzailea, 1994an jaio zen Toulousen, eta bertan gitarra saria lortu zuen Paul Ferrer-en eskolan, Parisko Conservatoire National Supérieur de Musique et de Danse kontserbatorioan onartua izan aurretik, Olivier Chassainen eskolan; aldi berean, Judicaël Perroy-ren eskolak ere jaso zituen.

Thibaut García munduko gitarra jaialdi nagusietan gonbidatu izan dute: Londresko Wigmore Hall-en, Vienako Konzerthaus-en, Amsterdamgo Concertgebouw-en, Moskuko Tchaikovsky Hall-en, Festival Radio France Occitanie Montpellier-en, Montrealgo Salle Bourgie-n, Parisko Philharmonie-n, Théâtre des Champs-Élysées-en, Toulouseko Grands Interprètes-en, Bartzelonako Palau de Música-n, Bruselako Festival Musiq'3-n, Bordeleko Auditoriumean, Seine Musicale-n...

2016an bere debuta egin zuenetik, Toulouseko Kapitolioko Opera Nazionaleko Orkestra Nazionalarekin, emanaldiak egin ditu Baden-Badeneko Orkestra Filarmonikoarekin, Radio-Franceko Orkestra Filarmonikoarekin, Parisko Ganbera Orkestrarekin, BBCko orkestrekin, Bordeleko Operako Orkestrarekin eta Rouengo Operako Orkestrarekin.

2021-2022 denboraldian, Silesian Philharmonic orkestrarekin, Ile-de-France Orkestra Nazionalarekin, Saint-Etienne Operako Orkestrarekin, Metzeko Orkestra Nazionalarekin eta abarrekin elkarlanean arituko da. Thibaut, halaber, Philippe Jarousskyrekin batera Europako hiriburu nagusietan zehar egingo duten binakako biran arituko da.

Ganberako musikari gisa, Thibaut García hainbat artistarekin jo du: Edgar Moreau, Raphaël Sévère, Philippe Jaroussky, Elsa Dreisig, Marianne Crebassa, Lucienne Renaudin-Vary, Anastasia Kobekina, Arod laukotea, Felicien Brut eta abarrekin.

2016an, eskusiboki sinatu zuen Warner Classics / Erato-rekin bere grabazio-proiektuetarako, eta "Leyendas" izan zen horren lehen emaitza. Orduz geroztik, 2018an "Bach Inspirations" argitaratu zuen, 2020an "Aranjuez" (Choc de Classica, Diapason d'Or, Gramophone Editor's Choice sariak jaso zituen) eta, duela gutxi, "À sa guitare", Philippe Jaroussky-rekin duan egindako albuma.